

## EDUROAM ADROID 2.3.5.-n KONFIGURATZEKO ESKULIBURUA (Samsung Galaxy S II)


### 1- Pasahitza definitu behar da, sinestamenduak gordetzeko lana babesteko.

Eduroam-erako ziurtagiria instalatu aurretik, gutxienez 8 karaktere izango dituen pasahitza definitu beharko dugu. Hain justu, hemen: Aplicaciones – Ajustes – Ubicación y seguridad - Definir contraseña




### 2- CA ziurtagiria instalatu behar da, WiFi Eduroam sarea benetakotzat egiaztatzeko.

USB bidez, sakelako telefonoa PCra konektatuko dugu, eta gordetzeko, "[AddTrustExternalCARoot.crt](#)" ziurtagiria kopiatu beharko dugu kanpoko SD txartelean (ez da inolako karpetatan sartu behar):



Behin kopiatu dugunean, instalatu ahal izango dugu, bide honetatik: Aplicaciones – Ajustes – Ubicación y seguridad - Instalar desde almacenes USB



SD txartelarik eduki ezean, ziurtagiria web nabigatzaile bidez jaitziko dugu ( Android ziurtagiria ) “EHU-wGuest” saretik eta izena emango diogu.

### 3- Sinestamendu seguruak erabiltzeko aukera aktibatzea.

Sakelako telefonoak ziurtagiria erabili ahal izan dezan, aukera hau aktibatu beharko dugu: “Usar credenciales seguras”




GARRANTZITSUA: Hau egitea ezinbestekoa da sakelako telefonoa pizten dugun bakoitzean. Gainera, 1. pausoko pasahitza idatzi beharko dugu (ikusi eranskina). Hau saihesteko modu bakarra dago; hain zuzen, Eduroam-en konfigurazioan CA ziurtagiria ez erabilia (baina ez dugu gomendatzen).

#### 4- WiFi Eduroam sarea konfiguratzea.


Lehenik eta behin, WiFi interfazea aktibatu beharko dugu. Honela: Ajustes – Conexiones inalámbricas – Ajustes WiFi



Eduroam-en estaldura-eremu barnean ez bagaude, aurreko pantailan aukera hau sakatu beharko genuke: “Añadir red WiFi”. Zerrendan ageri bada, ordea, estaldura-eremuan gaudela esan nahi du. Ondorioz, berehala konektatzeko moduan izango gara:



Gaingan sakatu, eta honelaxe konfiguratzen hasiko gara:



EAP: TTLS metodoa

2. fasea benetakotzat egiaztatzea: PAP


CA ziurtagiria: AddTrustExternalCARoot

Nortasuna: [usuario-ldap@ehu.es](mailto:usuario-ldap@ehu.es)

Nortasun anonimoa:

Pasahitza: password-ldap

Amaitzean, sakelako telefonoa Eduroam-era konektatuko da:



## ERANSKINA:

Sakelakoa itzaltzen dugun orotan, berriro piztean, honako hau aktibatu beharko dugu: Ajustes – Ubicación y seguridad- Usar credenciales seguras. Orduan, sinestamenduak gordetzeko pasahitza eskatuko digu (1. pausoa definitua), gerora WiFi-ra konektatu ahal izateko, CA ziurtagiria erabilia:



Pauso hau, dena den, ez da beharrezkoa izango baldin eta Euroam sarea legezkotzat jotzeko CA ziurtagiria txertatzea saihesten badugu. Alabaina, ez dugu gomendatzen CA ziurtagiria ez erabiltzea; izan ere, erabili ezean, sinestamenduak lapurtzeko aukera izugarri handitzen da.